



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, "BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2000-KO ERREKLAMAZIO EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOAK EBAZTEKO PROGRAMAREN EBALUAKETA TXOSTENARI BURUZKOA."

HKEEk aztergai izan duen programa hau, funtzionalki Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboarekin identifikatzen da (FAEKA/TEAF); organo honen egiteko nagusia da zergadun bizkaitarrek aurkeztutako erreklamazioen berri izatea eta erabakitzea, Foru Ogasunak egindako zerga kudeaketazko ekintzen ondorioz aurkeztutakoak.

HKEEk txostenean azaleratu du ebazteko dauden erreklamazio kopurua murrizteko programa honentzat aurreikusitako helburua ez dela bete, nahiz eta urtebetetik gorako antzinatasuna duten ebazpen kopurua nabarmen urritu den.

Erakunde fiskalizatzaileak uste du litekeena dela espedienteak 12 hilabetekoa baino epe laburragoan irtenbidetzea, horretarako plantilla behar hainbateko eta egonkorra baldin badu, behintzat. 2000ko urtealdian 10 pertsona gehiago behar izan ziren FAEKAREN plantilla osatzeko.

Honezaz gain, HKEEk FAEKAREN plantilla berregituratzea gomendatzen du, ebazpenetan atzeraldi handien eragiten duten egitekoetarako indartuz.

HKEEk txostenean egin duen beste gomendio bat da FAEKAREN eta Foru Ogasuneko kudeaketa atalen arteko komunikazioa hobetzekoa; baita, zergak arautzen dituen arautegia erraztekoa ere, aurkezten diren erreklamazioak murriztearren.